JANTOKI ZERBITZUA *26-27ko JARRAIBIDE OROKORRAK*

A) JANTOKI ZERBITZUA, BERTARATZEA ETA ABAR.

1. Jantoki-zerbitzua eskatzeko inprimakia ikastetxeko idazkaritzan aurkeztuko da matrikulazio epean, behar bezala beteta, sinatuta eta ezarritako datetan. Aldaketaren bat egin behar izanez gero, behar besteko aurrerapenaz jakinarazi behar da, **eskabide-orria berriro betez**. Aldaketa horiek urriaren 9a baino lehen baino ez dira izapidetuko.
2. Jantoki-zerbitzuaren plangintza jasotako eskaeren arabera egingo da.
3. Urriaren 9ko data igaro ondoren aldaketak edo zerbitzu-eskaerak egiten badira, idatziz eta arrazoi justifikatuarekin egin beharko dira. Bi asteko aurrerapenarekin eskatuko dira **eskabide-orria berriro betez**, eta, nolanahi ere, eskaera egin eta hurrengo hilabetearen hasieran hasiko dira ondorioak izaten.
4. Jantokira joan izanaren kontrol eraginkorra eraman ahal izateko, ezinbestekoa da bertaratze-hutsegiteak jantokiko arduradunari aldez aurretik jakinaraztea.
5. **Jantoki-zerbitzuaren eskubidea galtzeko arrazoiak** hauexek dira:
   a) Kuotak etengabe ez ordaintzea.
   b) Ikasleak behin eta berriz jokabide desegokia izatea.

B) OHIKO ETA NOIZBEHINKAKO JANKIDEAK.

1. **Ohiko jankidea**:
   a) Jantokiko zerbitzua ikasturte osorako eskatu duten DBHko ikasleak, gutxienez astean hirutan joaten direnak.
   b) HEZI+ proiektuan parte hartzen duten ikasleak, hiru hilabetez jarraian eta gutxienez astean hirutan joaten direnak.
   c) **Tartekako ohiko jankideak**: Banatutako guraso-zaintza edukitzeagatik edo guraso edo tutoreen lanagatik agian kurtso osoan, astez aste edo hilez hil txandaka ibili daitezkeen ikasleak.
2. **Noizbehinkako jankidea**:
   a) Aurreko sailkapenetatik kanpo geratzen diren ikasleak dira.

C) KUOTAK, KOBRANTZAK, BEKAK ETA ABAR.

a) **Ohiko jankideak**: 4,60 €/egun
b) **Noizbehinkako jankideak**: 5,20 €/egun

1. Jantokia erabiltzeagatik kobrantzak familiak eskatutako moduaren arabera egingo dira.
2. Ordainketa egiteko modurik ohikoena **banku-kontuan helbideratzea** izango da eta horrela egingo da familiak kontrakoa adierazten ez duenean.
3. Banku-helbideratzearen modalitatean, ikasturtean ordaindu beharreko zenbateko osoaren hasierako kalkulua egingo da, eta **zenbateko bereko 9 kuotatan zatituko** da. Ikasturtean zehar aldaketarik balego, **ekaineko azken fakturan kalkulatuko eta doituko da** dena.
4. Kobrantzak hilabete bakoitzeko **10etik 15era bitartean** egiten dira (urria eta ekaina bitartean, biak barne), betiere **hilabetea amaituta**, familiak aurkeztutako banku-kontuan.
5. Garrantzitsua da banku-kontuak saldo nahikoa izatea itzulitako ordainagiriak egon ez daitezen, horrek nahasmendu asko sortzen baititu. Ez ordaintzeagatiko ordainagirien itzulketak **komisio** batekin kargatzen dira normalean, eta komisio hori hurrengo kuotari gehituko zaio.
6. Egunen batean **jantoki-zerbitzurik ez badago** (greba, etab.), ez da egun hori kobratuko. Idatziz jakinaraziko da, behar besteko aurrerapenarekin.
7. Jantokiko kuotaren **% 50eko deskontua** kasu hauetan bakarrik egingo da:
   a) Jankideak jantokira joaten ez direnean ikastetxeak programatutako jarduera osagarrietan parte hartzeagatik eta piknik zerbitzurik behar ez dutenean.
   b) Jankidea jantokian astebete edo gehiago jarraian ez dagoenean, betiere gutxienez 48 ordu lehenago jakinarazten bada.
8. **Jantoki-beka** duten ikasleek kuotak ordaintzeari utziko diote Hezkuntza Sailaren jakinarazpena iritsi bezain laster. Une horretan, ordaindutako kuotak itzuliko dira, edo, hala badagokio, egindako zorra baliogabetuko da. Aurreko urteetan bekadun izana ez da kuotak ez ordaintzeko arrazoia izango.
9. Jantoki-zerbitzua ezin izango da erabili aurreko ikasturtean ordaintzeke zeuden ordainagiriekin.

Informazio gehiago nahi izanez gero (menuak, arauak eta abar), web orrialde hauek dituzue:

http://www.doloresibarruribhi.eus/

http://www.euskadi.eus/comedores-escolares/web01-a2hikasl/es/

Familien eta jantokiko arduradunaren arteko komunikazioa jantokia@doloresibarruribhi.eus helbide elektronikoaren bidez egingo da lehentasunez edo telefonoz/Whatsapp bidez 611800753 zenbakian

Jantoki-zerbitzuak behar bezala funtziona dezan zuen laguntza beharrezkoa dela gogorarazten dizuegu. Edozein zalantza, iradokizun edo iruzkinen izanez gero, zuen esanetara gaude.

Institutuko zuzendaritza
Joseba Etxaniz Bilbao

Jantokiko arduraduna
Jon Iñaki Carnicero Urra

✂ ---------- ✂

..... jaun/andrea .....
..... ikaslearen aita/ama/tutorea naizen aldetik jantokiari buruzko informazio hau jaso egin dut eta helbide elektroniko honetan: .....
eta telefono zenbaki honetan ..... informazioa jasotzea onartzen dut.

Sinatuta: